Nerea Guijarrubia agradece la aportación pero al ver que se trata de una enmienda de sustitución no la pueden admitir porque es poco concreta para lo que plantea la moción que presentan.

Teresa Escalante, en nombre del PSE-EE, manifiesta su enégica repulsa a las razones que generan refugiados y muestra su solidaridad con todas aquellas personas que han tenido que huir del terror, la miseria y la muerte. La situación de la violación de derechos humanos que viven muchas personas cree que require un liderazgo institucional y así los socialistas donde gobiernan actúan ante estas cuestiones con campañas de sensibilización y actuaciones concretas. Finaliza indicando que votarán a favor de la moción.

Paula Amievak esan du ezin dutela onartu EAJ-PNVren proposamena, horren edukia onartzen badute ere. Izan ere, mozioa zerbait zehatza da, Ongi Etorri Errefuxiatuak kolektiboari eta Gernikan hurrengo asteburuan antolatu diren ekintzei lotuta dagoena.

Paula Amieva manifiesta que no pueden asumir la propuesta del PNV aunque asuman el contenido de la misma ya que la moción es algo concreto en relación con el colectivo Ongi Etorri Errefuxiatuak y los actos programados en Gernika el próximo fin de semana.

Koldo Iturbek adierazi du hirugarren sektoreko entitate askok onartu dutela lehendakariaren adierazpena eta Eusko Jaurlaritza ekintza zehatzak proposatzen aritu dela, adibidez, errefuxiatuen harrera. Halaber, proposamen zehatzak luzatu dizkie bai Estatuko gobernuari bai gainerako erakundeei, errefuxiatuak hartzeko, eta, aldi berean, kontu berritzaile bat proposatu du: errefuxiatuentzako igarobide humanitario bat sortzea.

Koldo Iturbe manifiesta que la declaración del Lehendakari ha sido asumida por muchas entidades del tercer sector y el Gobierno Vasco ha estado planteando actuaciones concretas, acogimiento a refugiados y realizando propuestas concretas tanto al gobierno del Estado como al resto de las instituciones para acoger refugiados a la vez que plantea una cuestión innovadora que es la creación de un corredor humanitario para refugiados.

Nerea Guijarrubiak plataformak asteburuko antolatu dituen jardueren berri eman du, eta gerraren izua azken egunotan 80. urteurrena bete duen Gernikako bonbardaketarekin lotu du; izan ere, bonbardaketaren ondoren biztanle zibilek harrera eta arreta eman zizkieten beste herrialde batzuetara alde egin behar izan zuten. Iragan hori jarduketetan ahaztea eta Europar Batasunak mugak ixteko hartu dituen neurriak gaitzetsi ditu. Errefuxiatuak beren borondatez ez datozela esan du. Beraiek beren herrialdera itzuli nahi dute, baina horretatik alde egin behar izan dute gerrengatik, miseriengatik eta abarrengatik. Errealitate horren aurrean, giza eskubideez hitz egiten duten Europako herrialdeek ez dituzte horiek benetan errespetatzen, errefuxiatuei dagokienez. Espainiako estatuak errefuxiatuen harreraren inguruan agindu zuena ere ez duela bete gaitzetsi dute. Uste du

Nerea Guijarrubia recuerda las actividades programadas por la plataforma para el fin de semana y relaciona el horror de la guerra con el bombardeo de Gernika que en estas fechas ha cumplido su 80 aniversario, bombardeo que trajo la posterior evacuación de la población civil a otros países que les recibieron y atendieron. Critica que olvidemos ese pasado en nuestras actuaciones así como las medidas de la Unión Europea de cierre de fronteras. Indica que los refugiados no vienen voluntarios, ya que lo que ellos desean es volver a su tierra, pero han tenido que huir por guerras, miserias, etc. Ante esta realidad los países europeos que hablan de derechos humanos realmente no lo respetan en relación a los refugiados. Critican que el estado español no cumple ni aquello a lo que se comprometió en relación a la acogida de refugiados. Cree necesario asumir

beharrezkoa dela konpromisoak nork bere gain hartzea eta botere guztiei eskatzea beraiek ere konpromiso zehatzak har ditzaten beren gain eta esparru horietan lan egiten duten eragile sozialei lagundu dakien. Amaitzeko, Gernikan asteburuan gauzatuko diren ekitaldiekiko babesa eskatu du, eta jakinarazi du gobernuen egungo politikek ez dutela ordezkatzen herritarren iritzia.

compromisos y exigir a los diferentes poderes que asuman también compromisos concretos y se apoye a los agentes sociales que trabajan en estos ámbitos. Finaliza pidiendo el apoyo a los actos del fin de semana en Gernika y hace saber que las políticas actuales de los gobiernos no representan el sentir de la ciudadanía.

Santiago Sainzek defendatu du Espainiak Europarekiko konpromisoak bete behar dituela, baina ez daude ados mozioaren testu zehatzarekin; hala ere, ez diote horri aurka egingo.

Santiago Sainz defiende que España debe cumplir sus compromisos con Europa pero no están de acuerdo con la redacción concreta de la moción, aunque no se van a oponer.

Mozioa bozkatu da, eta honako emaitza hau lortu da: aldeko 10 boto (GUK, EH Bildu eta PSE-EE), aurkako 4 boto (PP), eta 10 abstentzio (EAJ-PNV eta Ciudadanos).

Sometida la moción a votación obtiene el siguiente resultado: 10 votos a favor, GUK, EH Bildu, PSE-EE; 4 votos en contra, PP; 10 abstenciones, PNV, Ciudadanos.

Gehiengoak onartutako mozioak:

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

1937an, faxismoak Gernika bonbardatu zuen, ankerkeriaz, modu basatian. Picassok Guernica margotu zuenetik, herri bizkaitarra Bakearen ikur bilakatu da mundu osoan. 2017an, laurogei urte geroago, beharrezkoa da gertakari haren memoriari bizirik eustea, eta "aski da" esatea milioika lagunen ihesaldia eragiten ari diren beste Guernica anker horien aurrean. Europako mugetan gertatzen ari dena historiako beste sarraski handi bat da. Ezin gara besoak gurutzatuta geratu, ez horixe.

En 1937 Gernika fue salvajemente bombardeada por el fascismo. Y desde que Picasso pintó el Guernica, este pueblo se ha convertido en un símbolo mundial de la Paz. En 2017, ochenta años después, es necesario mantener viva su memoria, y decir basta a la barbarie que está aconteciendo en esas otras Guernicas de las que huyen millones de personas. Lo que está ocurriendo en las fronteras de Europa es otro gran exterminio de la historia. Y no podemos quedarnos de brazos cruzados.

Ongi Etorri Errefuxiatuak Plataforman, laguntza humanitarioaz harago joan nahi dugu, ziur baino ziurrago baikaude salaketa politikoa dela pertsona guztiontzako justizia eta

Desde la Plataforma Ongi Etorri Errefuxiatuak queremos ir más allá de la ayuda humanitaria, en la convicción de que la denuncia política es motor del cambio hacia la justicia y dignidad de

duintasuna erdiesteko ezinbesteko aldaketaren motorra. Ezin dugu onartu mugak atxilotzeko, gizatasuna kentzeko eta heriotza eragiteko eremu bihurtzea milioika lagunentzat. Hori dela eta, ekitaldi bat antolatzen ari gara, Gernikan, 2017ko apirilaren 29an eta 30ean. Bertan, Euskal Herriko, Espainiako estatuko eta beste herrialde batzuetako milaka lagun bilduko gara, egoera honi dagokionez gure sumindura eta gaitzespena adierazteko, gure gobernuen pasibotasunaren kontrako jarrera agertzeko, bai eta aukerak planteatzeko eta eraikitzeko ere. Gernikako bonbardaketaren 80. urtemuga honetan, mobilizazio jendetsurako deia egiten dizuegu, "gerrarik ez" oihukatzeko eta migratzaile eta errefuxiatuei ongi etorriak direla esateko. Hauxe da gure proposamena:

- Apirilaren 29an, larunbatean, errefuxiatuei babesa agertzeko martxak egingo dira. Euskal Herriko hainbat tokitatik abiatuta, zutabetan iritsiko dira Gernikara, non ekitaldi hunkigarria egingo dugun atzoko eta gaurko Guernica horien oroimenez. Aurreikusita dago giza eskubideen eta bakearen arloko mundu-mailako zenbait erreferente etortzea.

- Apirilaren 30ean, igandean, gaien araberako tailerrak eta esperientzi mahaiak antolatuko dira: babes- eta asilo-eskubidea; antimilitarismoa; feminismoa; faxismorik eta arrazismorik ez; antikapitalismoa; harrera-esperientzia; Hegoaldeko muga; desobedientzia. Guztiak ere esperientzia, konpromiso eta borroka sozial ugariak ikusgai jartzeko xedez, hala nola gerturatzen diren mugimendu eta kolektiboen artean sareak eraikitzen jarraitzeko.

todas las personas. No podemos consentir que las fronteras se conviertan en espacios de detención, deshumanización y muerte para millones de personas. Por ello, estamos organizando un acto que se celebrará en Gernika los días 29 y 30 de abril de 2017. Este evento reunirá a miles de personas de Euskal Herria, del Estado y de otros países, para expresar nuestra indignación y repulsa ante esta situación, contra la pasividad e indiferencia de nuestros gobiernos, y para plantear y construir alternativas. En este 80 aniversario del bombardeo de Gernika, os convocamos a una movilización multitudinaria para gritar "no a la guerra", y para decir a las personas refugiadas y migrantes que son bienvenidas. Esta es nuestra propuesta:

- El sábado 29 las marchas de apoyo a las personas refugiadas, que partirán de varios puntos de Euskal Herria y llegarán en columnas hasta Gernika, donde celebraremos un emotivo acto en memoria de las Guernicas de ayer y de hoy. Está previsto que acudan diferentes referentes mundiales de los derechos humanos y la paz.

- El domingo 30 se organizarán distintos talleres temáticos y mesas de experiencias: derecho al refugio y al asilo; antimilitarismo; feminismo; no al fascismo y al racismo; anticapitalismo; experiencias de acogida; frontera Sur; desobediencia. Todos ellos con el propósito de visibilizar las distintas experiencias, compromisos y luchas sociales, y de continuar construyendo redes entre los diferentes movimientos y colectivos que se acerquen.

- Horrez gain, jarduera ludiko eta kulturalak izango dira topaketa osoan. Amaiera ekitaldian, erantzun eraginkor eta berehalakoak eskatuko ditugu munduan 65 milioi lagun baino gehiago jasaten ari diren egoera hau konpontzeko.

- Además, habrá actividades lúdico-culturales a lo largo de todo el encuentro. En el acto de despedida exigiremos respuestas efectivas e inmediatas ante esta situación que están padeciendo más de 65 millones de personas en el mundo.

Horregatik guztiagatik, Getxoko udaleko osoko bilkurak:

Por todo ello, proponemos al pleno del ayuntamiento de Getxo la siguiente PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Antolaturiko ekintza guztiak babesten ditu, eta osoko bilkura honek bere egiten du pertsona guztiontzako justizia eta duintasun aldarrikapena.

1. Dar todo su apoyo a los actos organizados, y hacer suya la reivindicación de justicia y dignidad para todas las personas.

2. Getxoko Udalak sentsibilizazio kanpainen bidez giza bazterkeri egoerak salatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du. Era berean Gernikan apirilaren 29 eta 30ean antolaturiko ekimenetan parte-hartzea babestu egiten du. Ildo horretatik, ekimen hauek udal komunikabideetan iragarriko ditu herritarrei parte hartzeko deia luzatuz.

2. El ayuntamiento de Getxo se compromete a continuar con la denuncia ante situaciones de exclusión social a través de campañas de sensibilización y apoya la participación en los actos de los días 29 y 30 de abril en Gernika. Además, dará a conocer a la ciudadanía getxoztarra este evento mediante los medios de comunicación municipales.

Eduardo Andrade bilkurara itzuli da berriz.

Se reincorpora a la sesión Eduardo Andrade.

**<u>74.- GUK ETA EH BILDU UDAL TALDEEK ELKARREKIN BATEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA: ESPEDIENTEA EGINDAKO SUHILTZAILEA.</u>**

**<u>74.- MOCIÓN CONJUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL GUK Y EH BILDU S/EL BOMBERO EXPEDIENTADO.</u>**

Paula Amievak ondorengo mozioa irakurri du:

Paula Amieva da lectura a la siguiente moción:

Suhiltzaile baten keinu handi bati esker, jakin dugu Bilboko Portutik armak tonaka bidaltzen direla Saudi Arabiara. Deigarria da kontzientzia-eragozpeneko eskubidea izatea Bilboko

Gracias a un gran gesto de un bombero, hemos sabido que desde el Puerto de Bilbao se embarcan toneladas de armamento con destino a Arabia Saudí. Es llamativo que haya tenido que ser el

Portutik armak ontziratzea eta garraiatzea agerian utzi duena. Badakigu, gainera, Bilboko Portua, bere administrazio kontseiluan, erakunde publikoek osatzen dutela, besteak beste Eusko Jaurlaritzak, Bizkaiko Foru Aldundiak, Bilboko Udalak, Estatuko Administrazio Orokorrak, eta abar.

ejercicio del derecho de objeción de conciencia lo que haya dado luz al embarque y transporte de armas desde el Puerto de Bilbao, entidad que, como sabemos, está conformada, a través de su Consejo de Administración, por instituciones públicas como el Gobierno Vasco, la Diputación Foral de Bizkaia, el Ayuntamiento de Bilbao, la Administración General del Estado…

Egoera horrek bi arazo larri erakusten ditu: lehenengoa, eta zalantzarik gabe larriena, euskal erakundeek Saudi Arabiarentzako armak ontziratzea eta garraiatzea onartu dutela eta onartzen dutela, Europar Legebiltzarraren 2016/2515 Ebazpena gorabehera eta nazioarteko erakundeen txostenak gorabehera. Horiek adierazten dute esportaziook 2008/944/PESC jarrera komuna urratzen dutela, armen esportazioa kontrolatzeari buruzkoa. Jarrera horretan, berariaz baztertzen da estatu kideek esportazio-lizentziak ematea, baldin eta ageriko arriskua badago esportatu gura diren teknologia edo ekipamendu militarrek nazioarteko zuzenbide humanitarioa larriki urratzeko eta eskualde batean bakea, segurtasuna egonkortasuna ahultzeko. Eta bigarrenik, gure erakunde publikoen inmoraltasuna edo kontzientzia falta ez dela bakarrik permisibitatean islatzen; haratago doa. Izan ere, suhiltzaile baten kontzientzia mendean hartu nahi da, diziplina-prozedura bat eginez, funtzioak bi eta lau urte bitartean kendu ahal dizkiona, eta zerbitzutik baztertu ere egin dezakeena.

Esta situación revela dos graves problemas: el primero, y sin duda el de mayor envergadura, que las instituciones públicas vascas han permitido, y permiten, el embarque y transporte de armas a Arabia Saudí, a pesar de la Resolución del Parlamento Europeo 2016/2515 y de los numerosos informes de organizaciones internacionales que dan buena cuenta de que tales exportaciones infringen la Posición Común 2008/944/PESC sobre el control de la exportación de armas; en la misma, se descarta explícitamente la autorización por los Estados miembros de licencias de exportación cuando existe un riesgo manifiesto de que la tecnología o los equipamientos militares cuya exportación se solicita puedan utilizarse para cometer violaciones graves del Derecho internacional humanitario y para debilitar la paz, la seguridad y la estabilidad en una región. Y el segundo, que la inmoralidad o falta de conciencia de nuestras instituciones públicas no sólo se queda en esa permisividad, sino que va más allá, pues se quiere quebrar la conciencia de un bombero a través de un procedimiento disciplinario que le puede suponer una suspensión de funciones de dos a cuatro años o, incluso, la separación del servicio.

Suhiltzaileak, kontzientzia-eragozpenerako eskubidea erabiliz,

Un bombero, en el legítimo ejercicio de su objeción de conciencia, ha puesto el

arreta deitu du Bilboko Portutik Saudi Arabiara egiten den armen esportaziora. Baina, gainera, Bilboko Portua osatzen duten erakundeen etika eta kontzientzia eza agerian utzi du. Izan ere, ezin dezakegu ulertu nola den posible, nazioarteko dei ugariei muzin eginez, Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioaren urraketa larriak egiten dituen herrialde bati armak eramatea baimentzea.

foco de atención en la exportación de armas a Arabia Saudí desde el Puerto de Bilbao, pero, además, lo ha puesto en la falta de ética y conciencia de las instituciones públicas que conforman el Puerto de Bilbao, pues no se entiende cómo es posible que a pesar de los numerosos llamamientos internacionales se siga permitiendo el embarque y transporte de armas a un país que comete graves violaciones del Derecho Internacional Humanitario.

Suhiltzaile honek bere kontzientzia-eragozpenaren bidez erakutsi diguna da aurpegia eman behar dela, arriskuak hartu, ezkutuan dagoena argitara atera, gizarte gisa ditugun balioak zalantzatan jarri, gure begiraden erdigunea ezkutuan dagoenaren eta lotsagarria denaren gainean jarri. Finean, gure erakunde publikoengandik espero beharko genukeena, zoritxarrez hala jokatzen ez duten arren. Eta hori egiterakoan, arrisku handia hartu du beretzat eta bere familiarentzat: bi eta lau urte bitartean lana utzi behar izatea eta, are gehiago, funtzionario izaera galtzea.

Lo que este bombero nos ha demostrado con su objeción es que hay que dar la cara, asumir riesgos, sacar a la luz lo innombrable, cuestionar nuestros valores como sociedad, poner en el centro de nuestras miradas lo que estaba oculto y es vergonzoso; en definitiva, lo que sería esperable de nuestras instituciones públicas, y que, por desgracia, no es así. Y lo ha hecho asumiendo un grave riesgo para sí y su familia, el de verse suspendido de funciones por un plazo de dos a cuatro años o, incluso, perder su condición de funcionario.

Azaldutako guztiagatik, hau ekartzen dugu Getxoko Udalaren udalbatzari:

Por todo lo expuesto, traemos al pleno del ayuntamiento de Getxo la siguiente

ERABAKI PROPOSAMENA:

PROPUESTA DE ACUERDO:

1. Getxoko Udalak elkartasuna erakusten dio Ina Roblesi, haren jarrera zilegi eta eredugarria delako. Gainera, Portuko Agintaritzan eta zerbitzu sekundarioetan lan egiten duten pertsonen kontzientzia-eskubidea aitortzeko eskatu behar da, eskubide hori, kasu honetan bezala, Europako ebazpenetan eta nazioartean ospea duten erakundeen txostenetan oinarritzen bada.

1. El Ayuntamiento de Getxo muestra su solidaridad a Ina Robles por ser su actitud lícita y ejemplar, y urge al reconocimiento del derecho de conciencia de quienes trabajan en la autoridad portuaria y sus servicios secundarios, si este se fundamenta, como es el caso, en resoluciones europeas e informes de organizaciones de prestigio internacional.

2. Getxoko Udalak Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen dio Ina Roblesi hasi zaion diziplina-espedientea berehala artxibatzeko eta largesteko.

2. El Ayuntamiento de Getxo solicita a la Diputación Foral de Bizkaia el inmediato archivo y sobreseimiento del expediente disciplinario incoado frente a Ina Robles.

3. Getxoko Udalak Bilboko Portuan gertatu dena salatu du, Europako Legebiltzarrak ezarritako aginduak ez betetzea delako. Bizkaiko Foru Aldundiari, Eusko Jaurlaritzari eta Estatuko Administrazio Orokorrari, Bilboko Portuko administrazio kontseiluko kide diren aldetik, ondokoa eskatzen die:

a. 2008/944/PESC jarrera komuna eta Europako Legebiltzarraren 2016/2515 (RSP) Ebazpena betetzen dela ziurtatzea.
b. Berehala eten daitezela armen ontziratzea eta garraioa euskal portuetatik Saudi Arabiara.

3. El Ayuntamiento de Getxo denuncia lo ocurrido en el Puerto de Bilbao, por ser un incumplimiento de los mandatos establecidos por el Parlamento Europeo, e insta a la Diputación de Bizkaia, al Gobierno Vasco y a la Administración General del Estado, como miembros del Consejo de Administración del Puerto de Bilbao, a:

a. Velar por el cumplimiento de la Posición Común 2008/944/PESC y de la Resolución del Parlamento Europeo, 2016/2515 (RSP).
b. Que se suspendan con carácter inmediato el embarque y transporte de armas con destino a Arabia Saudí desde puertos euskaldunes.

Teresa Escalantek, PSE-EEren izenean, adierazi du badakiela espedientea dagoela eta ez dutela esku hartuko haren izapidetzean. Dena den, horrelako gertaera bat, kontzientzia-objekzioa ez ezik, zigor-arauen gatazka ere dakarrena, garrantzitsua da, eta espedientea jaso duen suhiltzaileak hartutako erabakia babesten dute.

Teresa Escalante interviene en nombre del PSE-EE indicando que conoce la existencia del expediente y no van a intervenir en su tramitación, pero un hecho de esas características en la que se plantea no únicamente la objeción de conciencia sino también un conflicto de normas punitivas es relevante y apoyan la decisión adoptada por el bombero expedientado.

Nerea Guijarrubiak adierazi du gertatu denak zerikusia daukala gerrarekin eta ezin dela bereizi errefuxiatuen egoeratik. Askotan gerraren eta indarkeriaren aurkako gure jarrera agertzen dugula, baina, ekintza zehatzik egin ezean, ez duela ezertarako balio adierazi du. Askotan beste alderantz begiratzen dugu, armamentu enpresei dagokienez, lanpostuak sortzen dituztelako eta gure

Nerea Guijarrubia manifiesta que lo que ha acontecido tiene que ver con la guerra y no es separable de la situación de los refugiados. Indica que muchas veces manifestamos nuestra oposición a la guerra y a la violencia pero de nada sirve si no se realizan actuaciones concretas. Muchas veces miramos hacia otro lado respecto a las empresas de armamento porque generan puestos de trabajo y nuestras infraestructuras

azpiegiturek armak helmuga guztietarantz garraiatzea ahalbidetzen dutelako. Hori jarduera ekonomikoarekin justifikatzen da, eta ez dugu jakin nahi zertarako erabiliko diren arma horiek. Kasu honetan, getxotar ausart batek kasua argitara eman du, eta haren aurka diziplina espediente bat proposatu da, funtsean planteamendu ideologikoa duena, gauza guztiek bezala. EH Bilduk bere babesa ematen dio, aldaketak ekintza zehatzen eskutik baino ez baitira etorriko.

posibilitan el tráfico de armas hacia todos los destinos y ello se justifica en la actividad económica y no queremos saber en queé se van a utilizar dichas armas. En este caso un getxotarra valiente ha destapado el caso y contra él se plantea un expediente disciplinario que en el fondo tiene, como todo, un planteamiento ideológico. EH Bildu le presta su apoyo ya que los cambios solo vendrán de actuaciones concretas.

Paula Amievak esan du gai horrek udalerriari eragiten diola portua hurbil dagoelako zein Getxoko Udala Portuko Administrazio Kontseiluko kidea izan zelako. Halaber, adierazi du kontzientzia-objekzioa konstituzio eskubide bat dela eta, gainera, kasu honetan, errespetatu ahal zela, Aldundiak zerbitzua eman baitzuen.

Paula Amieva manifiesta que este tema concierne al municipio tanto por la proximidad del puerto como porque el Ayuntaniento de Getxo formó parte del Consejo de Administración del Puerto e indica que la objeción de conciencia es un derecho constitucional y además en este caso se podía haber respetado ya que la Diputación prestó el servicio.

Mozioa bozkatu da, eta baztertu egin da aldeko 10 botorekin (GUK, EH Bildu eta PSE-EE), aurkako 14 botorekin (EAJ-PNV eta PP) eta abstentzio 1ekin (Ciudadanos).

Sometida la moción a votación es rechazada al obtener 10 votos a favor, GUK, EH Bildu, PSE-EE; 14 votos en contra, PNV, PP; 1 abstención, Ciudadanos.

Koldo Iturbek EAJ-PNVk aurkako botoa eman izana justifikatu du: Bizkaiko Foru Aldundiko diziplina espediente bat da, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren kontrola Batzar Orokorrei dagokie.

Koldo Iturbe justifica el voto negativo del PNV porque se trata de un expediente disciplinario de un empleado de la Diputación Foral de Bizkaia y el control de la Diputación Foral de Bizkaia corresponde a las Juntas Generales.

**75.- EH BILDU ETA GUK UDAL TALDEEK ELKARREKIN BATEAN AURKEZTUTAKO MOZIOA: ERROMOKO GAZTETXEAREN ALDE.**

**75.- MOCIÓN CONJUNTA DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU Y GUK S/A FAVOR DEL GAZTETXE DE ROMO.**

Mozioa gai zerrendatik kentzen da.

Se retira la presente moción del orden

del día.

**76.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: OIER GOMEZ PRESO GAIXOAREN EGOERA.**

Mozioa gai zerrendatik kentzen da.

**76.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL EH BILDU S/EL PRESO ENFERMO OIER GOMEZ.**

Se retira la presente moción del orden del día.

**77.- CIUDADANOS UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO MOZIOA: GETXOKO UDALERRIAN DANTZA-SOINUARI ERAGITEA.**

Santiago Sainzek mozioa irakurri du.

Ibon Rodriguezek transakzio zuzenketa bat aurkeztu du. Honako hau da:

"HIRUGARRENA: Azterlan honekin batera, bere garaian San Nikolas plazan zegoen kioskoa berreskuratzea eta San Nikolas plazan bertan dantzaldiak egiteko eremua (kioskoa eta guzti) ahalbideratzea eskatzen dugu".

Santiago Sainzek positiboki baloratzen du zuzenketa, baina ez du onartu, haren edukiak bestelako mozio bat ekarriko luke eta.

Koldo Iturbek gobernu taldearen transakzio zuzenketa bat aurkeztu du. Hona hemen:

*"1.- Bultzatu, sustatu eta babesten jarraitzea Getxo udalerriko hirugarren adineko elkarteek eta udalak antolatzen dituzten dantzaldiak.*

*2.- Udalerriko azpiegitura berriak, Romo Kultur Etxea eta Getxo Antzokia besteak beste, ekimen hauen eskueran jartzea,*

**77.- MOCIÓN DEL GRUPO MUNICIPAL CIUDADANOS S/IMPLANTACIÓN DE BAILABLES EN EL MUNICIPIO DE GETXO.**

Santiago Sainz da lectura a la moción.

Ibon Rodriguez presenta una enmienda trasaccional a la que da lectura:

*"TERCERO: Junto con el referido estudio, solicitamos la recuperación del kiosko existente en su momento en la plaza San Nicolás así como la posibilitación de un espacio (con el kiosko y demás) en la misma plaza para la ejecución de bailes".*

Santiago Sainz valora positivamente la enmienda pero no la acepta ya que su contenido sería objeto de una moción diferente.

Koldo Iturbe presenta una enmienda trasaccional del equipo de gobierno a la que da lectura:

*"1.- Impulsar, fomentar y seguir apoyando los bailables que llevan a cabo las asociaciones de la tercera edad y las organizadas desde el ayuntamiento, en el municipio de Getxo.*

*2.- Poner a disposición de estas iniciativas las nuevas infraestructuras culturales del municipio como la Romo Kultur Etxea y el*

*berauek martxan jarri orduko."*

Santiago Sainzek transakzioa onetsi du.

Susana Andollok adierazi du, kontu horri buruzko azterlan bat egiteari dagokionez, beraiek eszeptikoak direla, lanpostu publikoak beti erabili direlako eginkizun horietarako. Hori dela eta, abstenitu egingo dira.

Ibon Rodriguezek esan du bere zuzenketaren helburua kioskoa berreskuratzea zela, eta bere harridura agertu du, gobernu taldeak balizko kokapentzat jo baititu Erromoko Kultur Etxea eta Getxo Antzokia.

Mozioa bozkatu da, eta onartu egin da; emaitza honako hau izan da: aldeko 17 boto (EAJ-PNV, PP, PSE-EE eta Ciudadanos), aurkako 4 boto (EH Bildu) eta 4 abstentzio (GUK).

Gehiengoak onartutako mozioak:

Duela gutxi, Udalbatzako kide guztiok dakigunez, Getxo "Lagunkoia" ekimenean sartu da. Ekimen horrek, besteak beste, hiri lagunkoiago eta adeitsuagoak sortu nahi ditu, batez ere proiektu honetako udalerrietan bizi diren adineko pertsonentzat.

Zinez uste dugu Getxo ekimen horretako partaide izatea mesedegarri dela, zalantzarik gabe. Ekimen horrek eskatzen dituen lanetatik, adineko pertsonen eskaerak jakiteak eskatzen dituen ahaleginak nabarmendu nahiko genituzke. Eta horixe da, hain zuzen ere, Getxoko Ciudadanos udal taldeak

*Getxo Antzokia, en cuanto se hayan puesto en marcha".*

Santiago Sainz acepta la transacción.

Susana Andollo interviene para indicar que respecto a realizar un estudio sobre esta cuestión son escépticos ya que las plazas públicas siempre han servicio para esas funciones, razón por la cual se van a abstener.

Ibon Rodriguez indica que la finalidad de su enmienda era recuperar el kiosko y manifiesta la sorpresa por que el equipo de gobierno plantee como posibles ubicaciones la Kultur Etxea de Romo y el Getxo Antzokia.

Sometida la moción a votación es aprobada al obtener 17 votos a favor, PNV, PP, PSE-EE, Ciudadanos; 4 votos en contra EH Bildu; 4 abstenciones, GUK.

Por mayoría fue aprobada la siguiente moción:

Recientemente, y como es sabido por todos y todas por los miembros que conforman esta corporación, Getxo ha pasado a formar parte de la iniciativa "Lagunkoia" la cual busca, entre otros objetivos, crear ciudades más amistosas y amigables principalmente para los vecinos y vecinas de la tercera edad de las localidades integrantes de este proyecto.

Sinceramente creemos que el que Getxo forme parte de la citada iniciativa no puede traer sino beneficios. Una parte que nos gustaría recalcar de las tareas que conlleva la citada iniciativa reside en los esfuerzos que implica conocer las demandas y solicitudes de nuestros mayores. Y es eso precisamente de lo

mozio honetan azalduko duena: adineko pertsonek aspalditik daukaten eskaera bat, orain arte bete ez dena, bete dadila, hau da, Getxo udalerrian dantzaldiak egitea.

que nosotros, el Grupo Municipal Ciudadanos Cs Getxo vamos a exponer en la presente moción: de una petición largamente demandada por nuestros y nuestras mayores, por ahora no materializada, que es la implantación de bailables en el municipio de Getxo.

Are gehiago, Getxoko Ciudadanos udal taldean uste dugu aldarrikapen honi, herritarren gainerako iradokizunei bezalaxe, aspaldi kasu egi behar izan zitzaiola.

De hecho, en el Grupo Municipal Ciudadanos Cs Getxo opinamos que esta reivindicación, al igual que todas las sugerencias vecinales, debió haber sido escuchada desde hace largo tiempo.

Izan ere, jarduera aberasgarria da, adineko pertsonei dibertitzen, gizarteratzen, lagun berriak egiten eta, finean, kolektibo hau eta udalerria bera aktibo mantentzen laguntzen diena. Gure inguruko hainbat udalerrik eskaintzen dute aisialdi mota hau, besteak beste: Portugalete, Erandio, Bilbo eta Barakaldok. Guztietan ere aparteko harrera izaten du, eta ez dugu inola ere zalantzatan jartzen Getxon ere harrera bikaina izango litzatekeela.

Y es que se trata de una actividad enriquecedora que les ayuda a divertirse, a socializar, a hacer nuevas amistades y en definitiva a mantener activo tanto a este colectivo como al mismo municipio, ya que son varios los municipios de nuestro alrededor que ofrecen esta forma de ocio como: Portugalete, Erandio, Bilbao o Barakaldo, y en todos goza de una excelente acogida, y no dudamos ni por un instante que esa buena acogida se dará también en Getxo.

Zehazki, gure udal taldean azterlan batzuk egitea proposatzen dugu, adineko pertsonen elkarteekin lankidetzan, dantzaldiak egiteko lekurik egokienak aurkitzeko, ekitaldi hauek behar dituzten baldintzak betez eta bizilagunei ahalik eta inpaktu eta eragozpen gutxien sortuz.

Concretando, lo que desde nuestro Grupo Municipal proponemos es la realización de unos estudios, contando con la colaboración de las asociaciones de la tercera edad, en pos de encontrar la o las localizaciones más óptimas para implantar los bailables, donde se reúnan las necesidades que estos eventos necesitan y donde el impacto y molestias vecinales sean las menores posibles.

Azterlan hauek egindakoan, Getxoko Udalak dantzaldiak ezarriko ditu lekurik egokienetan, baldintza onenak eskainiz.

Una vez realizados estos estudios el Ayuntamiento de Getxo implantará los bailables en la o las localizaciones más adecuadas y que reúnan las condiciones idóneas.

Horregatik, ondokoa adierazten diogu Udalbatza honi:

ERABAKI PROPOSAMENA:

1.- Bultzatu, sustatu eta babesten jarraitzea Getxo udalerriko hirugarren adineko elkarteek eta udalak antolatzen dituzten dantzaldiak.

2.- Udalerriko azpiegitura berriak, Romo Kultur Etxea eta Getxo Antzokia besteak beste, ekimen hauen eskueran jartzea, berauek martxan jarri orduko.

Por todo ello, trasladamos a este Ilustre Pleno la siguiente

PROPUESTA DE ACUERDO:

1.- Impulsar, fomentar y seguir apoyando los bailables que llevan a cabo las asociaciones de la tercera edad y las organizadas desde el ayuntamiento, en el municipio de Getxo.

2.- Poner a disposición de estas iniciativas las nuevas infraestructuras culturales del municipio como la Romo Kultur Etxea y el Getxo Antzokia, en cuanto se hayan puesto en marcha.

**GALDE-ESKEAK**

Gai gehiagorik ez dagoenez, Lehendakari jaunak bilkura bukatutzat eman du arratsaldeko 6 eta 40 minutu direnean. Bertan gertatutakoa, nik, idazkari nagusiak, jaso eta egiaztatu dut akta honetan eta alkate jaunak eta biok sinatu dugu. Eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

**RUEGOS Y PREGUNTAS**

Y no habiendo otros asuntos de que tratar, el Sr. Presidente levantó la sesión siendo las 18 horas y 40 minutos de este día, extendiéndose con su resultado la presente acta, firmando en unión mía el Sr. Alcalde, de todo lo cual yo, el Secretario, doy fe.